

Nafar**k**aria

Nafarrorako gehigarria / Ostirala, 1992ko urriak 23 / II. urtea / 47. zenbakia



Amen eta omen



AINGERU EPALTZA

Petra. Haren izenak, zibilizazio zenduen oihartzuna zekarren, Iruziak jota, basamortuarekin berdintzen diren morru hareatsuen bizi gabearekin. Ironia hutsa, estekatzen gaituzten morruak inor baino finkiago kolpatu nahi zituen batengan. Ironia hutsa, basamortu nuklearraren arriskua eragotzi nahiz, lur lurtarrago baten esperantzaren zipriztinez blaitu nahi izan gintuenarengan. Petra.

Petra. Telebistaren edo argazki kamararen ahoak haren iduria etxeko salara ekartzen zidanean, besoa berez mugitzen zitzaidan egunkari edo aparailuari buruz. Berehala zurkaiztu ezean, iduritzen zitzaidan, haren gorpuzkera hauskorrari ezin atxikiz, bere hartan erori eta deseginen zela. Ironia hutsa, bizitzaren zurkaizt izan nahi zuen batengan. Petra.

Petra. Bisaian betiere ageri ziztuen betondoak lo-gaitzaren arrazak erakusten zituen. 'Loa, loa, ttunttulunberde...' kantatu nahi nion orduan, xuxurluka belarrira, aingeruak ager zekizkion gau beltzean pausaldi. Ironia hutsa. Ez nintzen ohartzen harek ekarri nahi zizkigula guri aingeru berdeak, gure ametsetatik misil edo zabortege industrialen ipurdi beltza aiena zitezen. Petra.

Pe-trA. Bi silaba eta A aka-bailan. Bizi bizigarriago baten ametsetan ere bizi zen harako Ro-sA hura bezala. Biekin ikasi nuen bertzelako kumeak ere erditzeko gai dela, hiltzaileak mahaiburu hain aisa paratzen dituen herria. Petra eta Rosa. Gerlaren aurkako berdea eta gerlaren aurkako espartakista. Rosa eta Petra. 1919 eta 1992. Iraultzak porrot eginik, militar baten pistolak guregandik eramanez, biak. Hala ere, ez da dena pareko: harako Rosa haren hiltzaileak Rosa gorrotatzen zuen, eta —egunkariak hala diote, behintzat—, honako Petra hau ebatsi digunak, aldiz, Petra maite. Maitasuna gorrotoa bezain hilgarri?

Ez baitakit. Baina hori ere ironia hutsa da. Petra.

Intsumisioaren bide zaila


Joan den astean eman zen aditzera bederatzi intsumiso nafarrari ezarritako zigorra: lau hilabetetako gartzela. Orain arte gure lurraldean izandako txikiena izanik, poza eta itxaropena sortu du mugimendu honetan, baina Javier Iturri epailearen erabakiak polemika ere piztu du, berezia oso bait da. Izan ere, erabilitako argudioak akusatuek delitu egiterakoan zuten «ezjakintasunean» oinarritzen dira, gizarteak eta aditu frankok

emandako laguntza dela eta. 'Erru' hori kodigoan jasota dagoela eta, zigorrik txikiena jartzea erabaki zuen epaileak.

Abokatuak ere ez dira erabakiaren oso alde agertu, zalantzan jartzen bait ditu kontzientzi objektzioaren beraren oinarriak. Nolanahi ere, haize fresko apurra urte honetan eta hurrengoan froga gogorak izango dituzten gazte askorendako, aurten bakarrik beste hogeitamar bat epaiketa bait daude iragarrita.

Barnean

BASOGINTZA



Pagoaren Kongresua
izan da egunotan
Iruñean / VII

POLITIKA



Pedro Arbizu
lizarratarra EAJra
itzuli da / VIII

Gure aukerak

ERAKUSKETAK



Euskararen iraupena Nafarroako gaztelaren izeneko erakusketa ikusgai dago Agoitzen, bertako udalak antolaturik. Nafarroako Gobernuak subentzionaturako erakusketa honetan, Erribera eta erdialdeko zonaldeetan irauten duten hitz euskaldunak agertzen dira. Erakusketa panelen bidez antolatu dute, eta panel bakoitzean gai bati buruzko hitzak azaltzen dira.

Asuncion Goikoetxea artistaren lanak ikusgai daude Iruñeko Pintzel galerian, hilabetearen amaiera arte. Sakanako pintore honen lanak txuri-beltean egindakoak dira, eta nahiko abstraktoak. Publikoari goizez eta arratsaldean dago zabalik.

BESTELAKOAK



'Gaur egungo eskalada' gaiari buruzko diapositibak eskainiko ditu gaur, urriak 23, Nafarroa Kirol Elkartek, Jarauta kalean duen egoitzan. Saioa arratsaldeko zortzietan izango da eta Carlos Garciak zuzenduko du.

AEK-ko Mendi Txirindulari Taldeak iazko diapositibak emanaldia eskainiko du gaur, urriak 23, parte zaharreko euskaltegian. Saioa arratsaldeko zortzietan izango da eta ondoren bilera bat ospatuko dute. Bestalde, biharko, urriak 24, ateraldi bat antolatu dute, Belate-Txarutako itzulia hain zuzen. Goizeko

ERRAN DUTE



Sarajevon hotzez hilko gara».

Mato Zovkic

Sarajevoko bikarioa

«Gaurko gizakumea nortasuna galtzen ari da».

Javier Blazquez

Irakaslea

«Natura ez da abstraktoa, gizakumeak nahi duena baizik».

Fernando Basurto

Basogintzan aditua

«Garbi neukan Everestara igo behar genuela».

Pedro Tous

Mendigoizalea

Ibilbide hau egiteko garai aproposa dugu oraingoa, Linduxeko lepoa ezergatik ezaguna bada, bertatik pasatzen den txori eta hegazti kopuruetatik bait da: Euskal Herriko handienetakoa. Eta orain uso eta beste hegaztien migrazio garaia da, ehiztariek ongi asko dakiten bezala.

Orreagako kapelaz bestaldean ateratzen den bidea hartu behar da, pagadiaren artean Linduxeko leporaino eramaten duena. Ondoren, eta gailurra behin zapalduta, Erroibar eta Aurizko mendien artean muga egiten duen hesiari jarraitu behar diogu. Alduidetik Auritzerraino zeraman bidea topatu arte. Hortik Urreko amildegiaren bidetik, berriro Auritzera heldu arte.

Lindux Pirinio osotako hegazti migratzaileen kopururik altuenetakoa jasotzen ditu eta horren adibide garbia ditugu Ibañetatik Meatzera joaten diren ehiztariendako postuak: Nafarroako preziatuenak. Usoaz aparte harrapakari franko pasatzen da urtero leku beretik.



Halaber, bertan dauden lurraldeko pagadi ederrenetakoa, hagin bakarren batekin soilik nahastuta. Orein ikusgarriak ere aurkitu daitezke.

Halaber, bertan dauden lurraldeko pagadi ederrenetakoa, hagin bakarren batekin soilik nahastuta. Orein ikusgarriak ere aurkitu daitezke.

dantza', 'Ikusmena' eta 'Carboneros de Navarra' izango dira eskainiko dituzten filmak. Emanaldiak arratsaldeko 7.30etan izango dira, eta sarrera doahinik da.

IKASTAROKAK



Dantzak ikasi edo fanfarre batean musika jo nahi duten neska-mutilek Ortzadar Iruñeko euskal folklore taldearekin ha-

rremanetan jartzea besterik ez dute, taldeak berak jakinera eman duenez. Interesatuak dantza taldeak Descalzos kalean duen egoitzara joan daitezke, edo telefonoz deitu.

Soziolinguistikako ikastaroa hasiko da bihar, urriak 24, IPES elkarteak. Ikastaro hau larunbatean emango dute, bihar hasi azaroaren 28a arte. Klaseak goizeko 10.00etatik ordubietara

izango dira. Biharko emanaldia Xamarrek zuzenduko du.

Pintura, Saloiko dantzak, Argazkigintza, Masaje, Kosmetika naturala, Autodefensa eta Yoga ikastaroak antolatu ditu Alde Zaharreko Auzo Elkartek. Interesatuak daudenak taldeak Al-dapa kalean duen egoitzara, goizez edo arratsaldean.

ANTZERKIA



'Usoaren trukoa' izeneko antzezlan eskainiko du asteburu honetan Iruña Pequeño Teatro taldeak, Nafarroako Antzerki Eskolaren aretoan. Bai larunbatean, bai igandean, emanaldiak arratsaldeko zortzietan izango dira, Eskola eta Nafarroako Gobernuaren artean egin duten udazkenarako programazioaren barruan. Sarrerak 600 pezetatan salduko dituzte.

'Creaciones Matxin' taldeak antzerki saioa eskeiniko du bihar Elgorriagako Kultur Etxean. Nafarroako Gobernuak antolatzen duen 'Udazkeneko Biren' barruan dagoen emanaldia, arratsaldeko 8etan hasiko da.

MUSIKA



'Reage jaia' antolatu dute Lesakan datorren iganderako. Arratsaldeko 7.30etatik gaueko 11.00etara Iparraldean bizi diren Fila O talde afrikanarren eskutik izanen da.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, 30 **seme-alaba Nafarroako**. Elkarriketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835


Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarriketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

ASTEKO PERTSONAIK

Manuel Campos



Etxarri-Aranazko alkatea

Iazko irailean ikurrina ez paratzeagatik epaiketa egin zioten asteazkenean Manuel Camposi Iruñeko auzitegian, eta fiskalak bi hilabeteko gartzela zigorra eta 100.000 pezetako isuna eskatu zuten. Auzia bitxia oso izan zen, Campos eta lekuko asko euskara hutsez aritu bait ziren, nahiz eta itzultzaileak ez izan. Izan ere, horretarako eskaera ez zuen on-tzat hartu epaileak. Fiskalak, «probokazio eta isekatzat» jo zuen euskaraz aritzea, eta Araiz akusatuen abokatuak zalantzan jarri zuen epaia, «nekez epaitu daitekeelako lekukoei ulertzen ez zaienean».

Roberto Guevara



Che-ren anaia

Ernesto Che Guevara iraultzaile argentinaren egon da egunotan Nafarroan, Askapenak antolatu duen zikloaren barruan anaiari buruz hitzegiteko. Roberto 22 urtez bizi zen bere anaiarekin, eta hari buruzko alde ezakutuak edo ez hain ezagunak azaldu zituen. Bere esanetan, Che oso kritikoa zen ekialdeko 'sozialismo errealekin' eta aldaketa sakonen beharra azpimarratzen zuen. Halaber, anaiak kulturari buruz zuen kezka nabarmendu zuen Roertok. «Ernesto ez zetorren bat komunistek kulturarekin zuten asmoekin, askatasuna aldarrikatzen bait zuen kulturaren».

Ignacio Franco



Udaltzaingoaren burua

Udal ikastolaren auziak kapitulu berri bat izan zuen asteazken goizez, eta udaletxean orain arteko istilu larrienak izan ziren, kolpe, atxilotu eta istiluekin. Ikastolako gurasoek gogor kritikatu zuten Ignacio Franco udaltzaingoaren burua, honek erabilitako «indarkeriagatik». Polizia buruak, bere aldetik, «lotsagarria» jo zuen haren erabilerak, baina garbi dago, bideoak, jarraitimenduak eta atxilotetak tartean, udaltzaingoari berari ez dagozkion ekintza sobera bultzatzen ari dela Franco. Ondorioz, istiluak gero eta ugariagoak dira udaletxe inguruan.



HERRIZ BERRI



Najera

Najeratik New Yorkera

IRUÑEA

Blanka Nafarroakoaren hila New Yorkeko Arte Museo Metropolitanora eraman lezake, heldu den urtean Erdi Aroko arteari buruz bertan egin behar den erakusketan paratzeko. Horri buruzko lehen oniritzia eman zuen Najerako (Errioxa) Santa Maria La Realeko monastegiaren patronatuak, pasa den astartean egin zuen bileran. Aipatu monastegian Nafarroako zenbait errege eta erreginen hilobi daude, X eta XI. mendeetakoak, hain zuzen ere, eta Blanka Nafarrokoarena da, adituen esanetan, balio handien daukana.

New Yorkeko museo ospetsuak horretarako eskaera egin zion patronatuari, 1993ko abenduaren 13tik 1994eko martxoaren 13 bitartean Espainiako Erdi Aroko arteari buruz paratu nahi duen erakusketarako. Eskaerari patronatuak oniritzia emanda ere, Espainiako Kultura Ministerioaren Arte Ederretako Zuzendaritzak eman behar du azken onespina, eta horretarako patronatuak berak zenbait kontsulta egingo du. Hala ere, Juan Cruz Alli Nafarroako lehendakaria eta Patronatuaren burua horren alde agertu zen, «garai honetan arte



Erdi Aroko hilobirik ederrenetakoa da Blanka Nafarrokoarena.

ondasunen trukaketa oso garrantzizkoa bait da jende guztien-gana heldu ahal izateko.»

ERROMANIKOKO ALE EDERRENETAKOA Hilobi honen estalkia eskultura erromanikoko alerik ederrenetakoa da, XII. mendeko bigarren erdikoa. Egoera onean dago, muturretan dituen zenbait akats ken-

duta. Aitzinaldean erreginaren heriotzari buruz zenbait irudi dauka, eta haren arima jasotzen ari diren aingeruak antzeman ahal dira. Ertzeetan, bestalde, ezker aldean, emakumeak negarez ageri dira, eta eskuinaldean, erregea, tristeturik, zenbait laguntzailerekin.

Halaber, atzealdean, irudi erlijioso franko ikusi ahal dira, denak

biziki ongi kontserbaturik.

Patronatua Nafarroako eta Errioxako gobernuak, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako diputazioek, Espainiako Gobernuak, Najerako Udalak eta monastegiko frantziskotarrek osatzen dute, nahiz eta zenbait aldaketa izango diren. Ohorezko presidentzia Espainiako Erregeari ematea deliberatu zen astearteko bileran.

EFE

Tutera

Autobus geltoki berria onartu du Udalak

IRUÑEA

Erriberako hiriburuan autobus geltoki berria egiteko lanak onartu ditu bertako udalbatzak, 120 milioi pezetako aurrekontuarekin. Geltokia oraingo orube berberan eraikiko da, eta horretarako Nafarroako Gobernuarekin konbenioa sinatu zen pasa den abuztuan. Ordaindu ere, Gobernuak ordainduko du lanaren aurrekontu osoa.

Proiektua Luis Sainz de Ayala ingeniariak eta Luis Bas Arretxea arkitektoak egingo da, eta berrikuntza nagusiak barrera eta itzei, barruko gelak, aitzialdeak, eta itxaron gelak izango dira. Barruko usiakuntza Udalak berak egin edo lehiaketara aterako da, eta horretarako bete beharreko zenbait baldintza izango dira.

Altsasu

FORESTA feria ekainean

IRUÑEA

Basogintzaren FORESTA izeneko feria Altsasun ospatuko da heldu den urteko ekainean, Jose Cruz Perez Lapazaran Nafarroako Nekazaritza kontseilariak adierazi berri duenez. Hau izango da feria honen bostgarren edizioa, eta horretarako Burunda herriaren 10 hektarea erabiliko dira. Horieta hiru hektareatan zuzaren tratamendua, basoaren ustiapena, suteen kontrako metodoak eta oihargintzarako erabiliko dira, eta gainontzekoak basogintzan erabiltzen diren tresneri eta makinariaren erakusketarako izango dira. Hektarea hauek pagadi eta pinudietakoak izango dira.

FORESTAREN aurkezpenean, kontseilariarekin batera, Jose Manuel Goikoetxea Altsasuko alkatea eta Juan Garaiurrebaso Bilboko Erakustazokaren zuzendaria egon ziren, eta denek aipatu zuten egun basoen ustiapena berriro bultzatzeak duen garrantzia. Hain zuzen ere, eta nekazaritzaren beherakadak eraginda, gero eta joera nabariagoa



Basogintza arloa bultzatzea da feriaren helburua.

da Europar lurralde handiak basogintzaren ustiapenerako aprobetxatzea. Gogoratu behar da Nafarroak tradizio handia izan duela arlo honetan, bereziki Pirinio aldean, baina badaude beste leku batzuk horretarako aproposak, eta horren adibidea dugu Altsasu, bere azaleraren % 63 basoa bait da.

Lapazaranek ere azpimarratu

zuen Nafarroak beste lurraldetako teknikari eta administrazioekin harremanetan jartzeko duen beharra, «egunetik egunera inguru ekonomikoa gero eta handiagoa den une honetan».

Feria hau bi urtetik behin ospatzen da, eta iaizko edizioan 47 enpresak hartu zuten parte eta bertara arloko 6.000 profesional hurbildu ziren.



Lakuntzako Euskara Batzordeak kalera atera berri du herriko 'Aiaupenarik' aldizkariaren 2. zenbakia. Bertan hainbat gai agertzen dira eta besteak beste, txalaparta ikastaroa, Goardetxe-ko igoera, beste garaietako festak, Lakuntza inguruan ibilaldiak, abizenak, sendabelarrak eta komikiak daude irakurgai.

Zizur Nagusiko Kultur Etxeak helduendako antzerkia euskaraz ziklo bat antolatu zuen joan den astean Kultur Zikloa'92 izeneko ekitaldiaren barruan. Eskertze-koak dira zizurtarren ahaleginak, euskararen berreskurapena soilik umeei dagokiela uste den garai hauetan. Ez zen errezezi izango, eta agian ez zen aretoa bete, baina txapela kentzekoa, ahalegina.

Kasedako kiroldegien lanen lehendabiziko tarte lehiaketa publikora ateratzea erabaki zuten bertako udalbatza hilaren 19an. Epea heldu den urteko ekainaren 31 arte izango da, 59 milioi pezetako aurrekontuarekin, eta 8.662 metro karratuko azalera izango du kiroldegia. Bertan igeritokia, eraikin soziala eta kirol anitzetako pista izanen da.



Lizarrako Foruen enparantza berritzeko egiten ari diren azterketa arkeologikoetan zenbait kalte eragin zituzten ezezagun batzuek joan zen asteburuan. Bertako azterkuntzan zenbait hondakin aurkitu zituzten duela gutxi, eta haien artean hilerri batenak. Adituek orduan adierazi zuten, lauhun urte izan zezaketen hondakinek, eta hezurak, buruak eta abar atera ziren. Larunbat gabe, zenbait ezezagunek burua puskatu eta hezurak lapurtu zituzten. Arduradunek azaldu zuten, kalteak ez dira oso handiak, hondakinek ez bait zuten aparteko baliorik, baina salatzen da nola ez, gertaera.

Iruriko Miguel A.A atxilotu zuen joan zen larunbatean Goardia Zibilak, orein bat hiltzeaz akusatuta. Oreinak bi urte zituen, eta atxilotuta Kinto eta Baztanen arteko mugan izan zen, gaberdi aldera. Poliziak azaldu zuenez, ordu horretan antzeman zuten kotxe batetik orein bat botatzen zuten gazte bat, baina aldegin zuen menditik. Gidaria atxilotu zuten, eta epailean aurrean oreina hil zuenik ukatu egin zuen. Bere esanetan, oreina hilda zegoen eta jaso besterik ez zuten egin.



Intsumisioa

I oan zen astean ezagutu zen ekainaren 2an hamabi intsumisori Iruñean egindako epaiketaren lehen-dabiziko epaia: lau hilabeteko kartzela zigorra. Erabakiak ustekabe eta poza sortu du intsumisioaren mugimenduan, Nafarroan orain arte izandako zigor txikiena izanda ere, bereziki Juan Carlos Iturri epaileak erabilitako argudioagatik. Izan ere, kontzientzi eragozpenak urtetan eskutakoari oniritzia eman bait dio Iturrik bere epaian: oinarritzko eskubidetza hartzeari, alegia. Honek bide berri bat zabaldu du mugimenduan, eta kontutuan harturik urte honetan hogeitamar bat epaiketa gehiago iragarrita dagoela, itxaropen apurra ekarri dio gazte frankori.

Intsumisioaren ibilera herrena

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Pasa den astean ezagutu zen erabakiak izugarritzko eragina izan du intsumisioaren mugimenduan, horrek, askoren ustez, bide berri bat ireki bait du epaiketetan. Izan ere, lau hilabeteko zigorra orain arteko txikiena izatea baino, Juan Carlos Iturri epaileak erabilitako argudioak izan dira interesa piztu dutenak. Gogoratu behar, kasu berean, Alvaro Latorre Nafarroako Epaitegiaren bigarren gelako epaileak bi urte, lau hilabete eta egun bateko kartzela zigorra eskatu zuela antzeko bi epaiketetan.

Juan Carlos Iturrik azalpen bereziki garrantzitsua egin berri du bere erabakian: kontzientzi eragozpena oinarritzko eskubidea dela, alegia. Eztabaida honetan dago, iturri juridikoen arabera, intsumisioaren kokka.

Kontzientzi eragozpena oinarritzko eskubidetza hartzen baldin bada, soldadutzari uko egitea zilegi litzateke, eskubide hori batesteko aitzakiaz. Eta kontzientzi eragozpenaren lehendabiziko borroka horixe lortzea izan zuen helburua. Espainiako Auzitegi Konstituzionalaraino heldu zen horretarako, baina honek, 1987ko urriaren 27an kontrakoa erabaki zuen, hau da, eskubidea izan badela baina bete beharreko zenbait araukin, beti ere.

Pasa den asteko erabakian, Iturrik horren garrantzia azpimarratu zuen, eta legeak «errespetatu beharra» nabarmendu. Hala ere, garbi utzi zuen berak «egoikiago» ikusten zuela oinarritzko eskubide bezala hartzea, eta horrekin lotuta zenbait iritzi jaso zituen, hala nola Espainiako Arartekoa, aipatu auzitegiaren zenbait epaile, beste auzitegitako epaile franko, talde politiko batzuk, aditu zenbait, eta gizartearen hainbat talderenak. Horiek guztiak eskubide hau oinarritzkotzat hartzean bat etorri ziren.

Oinarritzko eskubidea onartzeaz gain, defentsak erabilitako argudioa ere ontzat eman zuen



Epaiketa ekainaren 2an egin zen Iruñean.

JOXE LACALLE

Azkonaren errekurtsioa

Fermin Azkona intsumisoak aurkeztutako errekurtsioa da intsumisioaren hurrengo froga. 23 urteko gazte hau MOC-KEMeko abokatua den Iñaki Subizak defenditu zuen, eta Nafarroan egindako lehendabiziko epaiketa izan zuen. Erabakia: bi urte, lau hilabete eta egun bateko kartzela zigorra. Hala ere, Azkonak errekurritzea deliberatu zuen eta hori dela eta Iñaki Subizak utzi egin zion bere defentsari.

Azkonaren kasua Auzitegian dago orain, eta bertan erabakiko denak garrantzi handia izango du intsumisioaren mugimendurako, auzitegia epaitegien gainetik bait dago. Bertan erabakitakoa, berdin. Izan ere, Gurrutxagaren ustetan, bertan erabakiko bait da arazoaren kokka, ea kontzientzi eragozpena oinarritzko eskubidea den ala ez, baina hala ere, horrek ez du esan nahi erabakia beste epaiketa guztietan ezarri beharko denik. «Gu-

re defentsan erabilitako zenbait argudio ez ziren Azkonaren epaiketan erabili, eta horiei buruz ez da ariko auzitegia. Koxkari helduko diote seguruenik».

Horregatik, bertako erabakia soilik dagokion asuntoari izango da lotesle. Hau da, gerta liteke auzitegiak Azkonaren kontrako kartzela zigorra berrestea, eta hurrengo epaiketan Iturrik erabilitako argudioak, berriro ere, baliagarriak izatea. Nolanahi ere, intsumiso asko horren zain daude, eta Alvaro Latorre epaileak berak, Almediaren kontrako zigorra indarrean jartzeko, auzitegiaren erabakiaren zain zegoela adierazi zuen.

Hori dela eta, bideak ireki edo itxi egin daitezke aipatu erabakiarekin, eta kontutuan hartuta urteren amaiera baino lehen hogeitamar bat epaiketa egingo direla Nafarroan, ikusmin handia dago erabakia-ekin.

epaileak. Abokatuek epaiketan azaldu zutenek, gizarteak eta hainbat adituren adierazpenek, beren jarrera zilegi zela pentsatzera behartu zituzten akusatuak, eta horren arabera, legeari begira

errua ez zen hain larria izango. Horregatik beraz, lau hilabeteko kartzela zigorra.

ERABAKI EZBERDINAK EPAIKETETAN

Nafarroan, orain arte egindako epaiketetan, zigor oso bestelakoak jaso dituzte intsumisoek, bereziki epaileen iritziek baldintzatutakoak. Lehendabizikoan, Fermin Azkona iruindarrari egindakoan, bi urte, lau hilabete eta egun bateko kartzela zigorra ezarri zion Alvaro Latorre epaileak, legeak agintzen zuen argudioan oinarrituta. Hurrengo Juan Miguel Almeidaen kontra egin zuen epaile berberak, eta arrazoi beragatik, ordezkotz zerbitzu sozialari egindako muzina zela eta. Emaiza ere berbera izan zen: hogeitazortzi hilabete eta egun bat.

Hurrengo biak intsumisoei egindakoak izan ziren —Jesus Valencia eta Javier Aldabe—, eta


orduan ere gutxienezko zigorra eskatu zuen epaileak, argudio berberak erabiliz: legea bete behar da ezeren gainetik.

Hori zela eta, jakinmin handia zegoen Iturriren erabakia ezagutzeko, eta horrek garbi utzi du epaitegien barruan aspaldidanik antzematen ziren jarrera ezberdinak. Felipe Gurrutxaga abokatuaren ustetan, horrek ez du epaitegiaren barruan tentsiorik sortuko, «Iturrik pare bat kapote bota bait dizkio Latorreri bere erabakian», baina azaleratu egin du, bere ustetan, Justiziaren kontzeptzio desberdinak. «Latorre oso legalista da, eta legearekin besterik ezin duela egin garbi utzi du. Hala ere, Almeida epaitu zuenean, erabakia azaldu eta berarengana joan zen, asko sentitzen zuela esanez. Horrek esan nahi du arazoarekiko sentsibilitate nabaria dagoela, eta horrek lasaitasuna ekarriko du».



Intsumisoak epaitegitik ateratzean.

JESUS DIGES/EFE



Intsumisioa

Kakitzat eta KEM-MOC: helburu bakar batendako bi bide

A.B. / IRUÑEA

Kakitzat eta KEM-MOC dira Nafarroan intsumisioarekin ari diren bi taldeak, biak filosofia eta bide desberdinekin, nahiz helburu berbera izan. Horrek nahastea ekarri du noizbait, eta gerta liteke ere, prozesuen bidea ikusita, batzuek besteek baino emaitza 'hobeak' lortzea.

KEM-MOCek antimilitarismo hutsa erreibindikatzen du, estrategia zehatz eta ongi pentsatuta baten barruan. Desobediencia dute bidea, eta ez dute onartzen biktimaren etiketa. Horregatik, antimilitarismoa dute bandera, eta ez dituzte onartzen soldadutzari uko egiteko beste bideak.

Kakitzat taldeak, berriz, segimendu pertsonalagoa egiten du, eta ez dauka inolako erreparorik soldadutzan bertan izaten diren egoerak bereganatu eta salatze-ko. Soldadutzatik libratzea dute helburua, edonola izanda ere, eta horren adibidea azken epaiketan erabilitako argudioa. Horren lekuko ere Oscar Navascues gaztearekin gertatutakoa, Kakitzat taldeak eta Felipe Gurrutxaga bere abokatuak hartu bait zuten bere ardura, gaztea ez objektorea ez intsumisioa ez izanda ere.

Bien bide ezberdinen adierazgarri hartu liteke, halaber, Fermin Azkona intsumisioak aurkeztu zuen errekurtoa. Ordurarte KEM-MOCren abokatuak defenditu zuen, baina errekurtoa aurkeztekoan utzi egin zuen. Subizak berak orduan esan zenez, «Azkonak bide pertsonala hautatu du soldaduskatik libratzeko, baina KEM-MOCen beste ildo batean gaude. Bide legalekin saiatu ginen, eta agortu zitzaizki-



Iñaki Subiza, KEM-MOCeko abokatuak.

gunean, buruz buruko borrokara jotzea erabaki genuen, hau da, legegari muzin egitea. Hori izan da gure bidea». Hori dela eta, azken epaiketan erabili den argudioa —delitua egiten ari zirela ez jakitearena— «ez dutela erabiliko» garbi utzi du. «Guk gure bidea hautatuta dugu, eta MOCeko jendea ongi informatuta dago».

ABOKATUAK DEFENDITU BEHARRAZ


Felipe Gurrutxaga Kakitzateko abokatuak, ordea, ez dator bat bide honekin, «barritik, horren alde egon arren». Bere ustetan, jende gaztearen artean gutxi dira gauzak horren garbi dituztenak, eta abokatuak guztiak «defenditu beharra» duela azpimarratzen du. «Nahiz eta gazte batek antimilitarismoaren kontzeptua oso garbi ez

izan, soldaduskara joan nahi ez badu, edozein arrazoi izanda ere, ezin dut defentsarik gabe utzi, azken finean ez bait naiz ni kartzela zigorra izan dezakeena».

Gurrutxaga, baina, bat dator Subizarekin jende askoren beharra azpimarratzerakoan. «Intsumisioaren borroka galdu edo irabazi egingo dugu deialdi guztietan, lurralde orotan, hoguei bat intsumiso aurkezten baldin badira. Kopuru horiei eutsi egin behar zaie. Horrek makurtuko du gobernuak».

Hori dela eta, baikor da etorkizunarekin. «Azken erabakiak oso baikorrak izan dira, eta gerta liteke ere auzitegiak elkarrekin bat ez etortzea. Orduan Espainiako Auzitegi Gorenera jo beharko litzateke... Borroka luze dugu aurrean».

JOXE LACALLE



Felipe Gurrutxaga.

AITOR BAYO



Mendetan zehar erabilitako bideak dira ardibideak.

Ardibideei buruz jardunaldiak egingo dira Iruñean

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Azaroaren lehendabiziko astean Iruñeko Nafarroako Museoan ardibideei buruz antolatu diren I. Jardunaldiak egingo dira. Ardibideen Lagunen Elkartek antolaturik bideoak, mintzaldiak, eta ibilbideak izango dira lau egunetan zehar, mendeetan erabilitako bide hauei buruzko egokera aztertu eta bultzatzeko soluziobideak bilatzeko.

Elkartea aurtengo apirilean osatu zuen bide hauek kontserbatzea erabakita zegoen lagun talde batek, eta bere lehendabiziko asmoen artean ardibideen mapa atera eta jendea eragartzeko izan zen. Halaber, artzainekin ere hitz egiteko asmoa azaldu zuten orduan, ganaduzaleek betidanik erabilitako bide hauek mantentzeko arazoak zehazki zeintzu ziren ezagutzeko.

Izan ere, Nafarroan garrantzi handia izan zuten bide hauek behiala, eta garai batean, herri bakoitzak bere ardibideak zaintzen zituen. 1926an, ordea, Nafarroako Gobernuak egin zuen

nekazaritzaren gorakadak eraginda, bide hauek asko galdu egin ziren, eta orain berriro berreskuratzea du helburu elkarte honek.

Guzti horrekin lotuta jardunaldiak antolatu dituzte orain, bide hauen gaur egungo egoera nola dagoen ezagutu eta bultzada emateko. Azaroaren 4ean, asteazkena, aurkezpena izango da, eta arratsaldeko sei terdietatik aurrera artzainek bide hauekin zuten bizitzari buruzko bi bideo ikusiko dira: J.G. Purroyrena batak, eta Luis Broxena bestea.



Nekazaritzak ezabatu zituen bide asko.

lehendabiziko azterketa zehatza. Horrela, lau mailatan sailkatu zituen ardibideak: erret ardibideak, gutxienez 40 metroko zabalera zutenak; trabiesak, aurrekoak elkarrekin lotzen dutenak, eta gutxienez 30 metroko zabalera izan behar dutenak; *ramales*, edozein herritatik lehendabiziko ardibideraino joaten direnak eta *pasadas*, beste guztien artean daudenak. Azken hauek gutxienez 15 metroko zabalera behar dute izan. Azterketa honetan ardibide guztien luzera orokorra zehaztu zen. Erret ardibideetan bederatzehun kilometro zenbatu ziren, eta beste guztien artean, 2.600 kilometro.

Denak markatu eta zehaztuta izanda ere, urteen poderioz, eta

Azaroaren 5ean, osteguna, Iberiar Penintsulan eta Frantziako abelbideei buruz arituko dira, eta Pirinioetako bideoa eta mintzaldia ere iragarrita daude. Hurrengo egunean, azaroaren 6an, ostirala, Nafarroako ardibideen egoerari buruz arituko dira partaideak, eta mintzaldian, Hilario Vilavilla Aedenat talde ekologikotako partaidea, Ismael Perez Buj Nafarroako Gobernuako Komunalen Atalako burua, Otsagiko Ekia taldeko partaidea bat eta Ramon Elozei elkartearen laguna arituko dira. Amaitzeko, larunbatean, azaroak 7, ibilaldia egingo da probintziako erret ardibideetatik zehar, Beorburu (Xulapain) eta Aldatzen (Larraun) artean.

Gazteendako Zokoa

Arabazozo pikarta

Sturnus vulgaris

Zolda berdexkak ditu
Nafarroako iparraldean
Abereen inguruetan



Usoekin batera

Txori hau ederki ezagutzen dute ehiztariek, usoen zain dardelarik agertzen bait dira sailak, urriaren erdialdean. Halaber, azaroaren hasieran ere ikusten ohi dira, usok ia desagertu direnean.

Halaber, ederki ezagunak dira Erribera aldean, mahasti eta oliba sobrantak jaten ahalegintzen direnean. Tuter inguruko zenbait zingiratan milaka harrapatu ohi dira sareetan, usoen antzera.

Franko ezagunak izanda ere, gutxi dakite Nafarroako bertako arabazozoak ere badaudela, ikusten diren gehienak migratzaileak bait dira. Eta azken urteotan izugarri ugaltu dira gure lurraldean, arabazozo beltzek egin duten antzera.

Arabazozo pikarta beltza da, baina lepoaldean zenbait zolda berdexka ditu, distiratsuak. Beltza baino xumeagoa da, eta kantua ere ez da hain nabaria. Talde handietan aritzen dira, eta abereen inguruetatik ikusten dira maiz, intsektuak bait dituzte bereziki gogoko.

Nafarroan ugaria da iparraldean, eta beti zuhaitzetan erruten du, haritzetan bereziki.

NEREA PEREZ

Indarkeriaren definizioa ez dut ezagutzen, egia esanda, baina beren ondorioak bai ezagutzen ditut, indarkeriaren biktima izan naizelako. Pertsona batek beste pertsona baten borondatearen edo gustoaren aurka egiten duen ekintza, nere ustez, indarkeria da.

Gaur egun indarkeriaz inguraturik gaude, leku guztietan topatu ahal bait dugu: politikan, kirolan... eta kaleetan. Azken hau neretzako nabarmenena da. Kaleetan indarkeria edozein lekutan somatu ahal da, eta normalean, horren biktima emakumea da.

Argi eta garbi dago zergatik den emakumea kasu gehienetan bortxatuta sentitzen dena: gizonen ustez, emakumezkoek beraiek baino indar gutxiago dutelako, hau da, gizonak, askoren ustetan, emakumearekin nahi duena egin ahal duela. Ez zait atsegina egiten nere arazoez hitz egitea, baina muga honetara heldu garenez, orain dela urte bat gertatu zitzaidana kontatuko dut.

Maiatzaren 2a zen. Egunero bezala unibertsitatean joan nintzen. Altxatu, gosaldut, garbitu... eta egunerokoa entzuteratzen. Egun hartan ez nintzen ongi sentitzen, nahiko nekaturik nengoen eta lana egiteko gogorik gabe. Agian gaixorik jartzen ari nintzen.

Lehenengo bi orduak nahiko gaizki pasa nituen, baina ez nintzen ausartzen gelaren erditik komunera ateratzera. Altxatzen baintzen literaturako irakasleak zerbait esango zidala ziur nintzen. Baina hirugarren ordua jasanezina izan zen eta gehiago pentsatu gabe gelatik komunera ateratzen, burua tente, begiratu gabe, eta ahoa ireki gabe. Irakasleak esan zidan Jaime (nere ikaskidea) komunean zegoela eta ea ezin nuen itxaron bera etorri arte. Oso gaizki sentitzen nintzela esan nion, eta orduan esan zidan joateko, eta Jaimeri, ikusten banuen, gelara itzul zedin esateko.

Komunean Jaime zegoen.



Nesken komunean egotea oso arraroa egiten zitzaidan, eta oso gaizki ikusi nuen, izerditan, begiak itxita, lo egiteko gogoia dutunean bezala, eta aurpegia oso zurbil zuela iruditzen zitzaidan. Orduan, zer gertatzen zitzaien galdetu nion. Baina berak, kasurik egin gabe, besotik hartu eta, kolpeka, komunaren barrura sartzea lortu zuen. Hain ikusi nuen txundituta utzi ninduen, komunara xirringez beteta zegoen. Hori ezustekoa! Bapatean hasi nintzen gauzak ulertzen. Lasaitzeko esan nion, baina kasurik egin gabe galtzak jeistera behartu ninduen. Xirringa batekin mehatxatu ninduen eta... gertatutakoa uste dut denok jakingo duzuela, ez bait da gertatzen den lehenengo aldia. Ondoren, hiru egunetan jandakoa lurrera bota nuen eta komunetik ateratzen saiatzen hasi nintzenean konortea galdu eta lurrera erori nintzen. Jaimek bere gauza guztiak hartu eta ospa egin zuen.

Nik lurrean etzanda ordu erdi

bat igaro nuen, ikasle bat etorri zen arte. Laguntza eskatu eta etxera eraman ninduten. Esnaterako momentuan ez nintzen ezertaz oroitzen, bainan gero gertatutakoa guztia kontatu nien.

Hori eta gero nere gurasoek gertatutakoa salatu zuten eta epaiketa bat egin zen, Jaime bertan zegoela. Ez dakizue nola sentitu nintzen ikusi nuenen, Jaime hiltzeko gogoak nituen, laban bat izan banu poliki-poliki hilko nuen sufriarazteko, nik sufritu nuen bezainbeste.

Inongo frogarik ez zeudelako, Jaime atxilotu gabe utzi zuten, ez zuen ezta segundu bat ere gartzelan igaro.

Orain urte t'erdi pasa da eta Jaimek nere gelan jarraitzen du, pertsona arrunt bat bezala. Eta nik diodan beldurra ez zait inoiz kenduko.

Iaz neri gertatu zitzaidan, bainan edozein momentutan zuri gertatu ahal zaizu. Eta gure partetik geuk zerbait jartzen ez badugu beti berdin jarraituko dugu.



BASAJAUN

Neguan gaude. Ur zaparradak izan ditugu azken egunotan, hau da euria! Eta urari buruz mintzatzen bagara, nahiko ezezaguna den gai bat ukitu beharrean gaude: ura aurrezteko zein beharrezkoa den guztiontzat, alegia.

Europako herrialdeetako etxetan, egunero erabiltzen den ur kopurua berrehun litrotan zenbatuta dago. Beste arlotan —industrian, adibidez— berrehun eta berrogeitamar litro ur erabiltzen dira, nekazaritzan erabiltzen dena kontutan hartu gabe. Oso arrazoi gutxi egonen dira hainbeste ura erabiltzeko.

Hainbeste ur erabiltzen jarraitzen dugun bitartean, arazgailu gehiago behar dira ura garbitzeko eta gero eta ur gutxiago izango dugu. Eta gaur egun sortu diren arazo guztiekin, hemendik gutxira ura aurrezteko guztiz beharrezkoa izango da. Beharrezkoa izango da, adibidez, etxeetako uraren erabilera norbere esku bakarrik ez izatea, eta, kontagailu baten bidez, muga bat ezartzea. Industriari edateko ur ona erabiltzea debekatzea, kasu, oso neurri egokia litzateke. Baina, jakina, zuk ere baduzu zeure egin-beharra auzi honetan.

Eskuak garbitzen dituzunean edota hortzak, ilea, edo bainu bat hartzen duzunean, kontuz ibili eta ez utzi txorrotak irekita, behar ez duzunean. Eskuak garbitzeko erabilitako ura, xaboirik gabe garbitu baldin badituzu, zure loreak ureztatzeke erabil dezakezu, ona da eta. Zure etxean tantaka ari den txorrotak konpondu, egunero 30 litro ur galtzen bait du.

Nork behar du ura aurrezteko? Zuk, dirua aurrezteko duzulako. Inguaruak, gure basoak eta mendiak urteigiz betetzen direlako. Arazgailuek, arriskutsua bait dira, ur garbiketa ondoren ez bait dakite lohiek zer egin. Ura gaur egungo petrolioaren bezain garrantzitsua da. Bakarrik falta denean konturatzen gara horretaz.

Jenero Xumekoak

Tabernak irekitzen direneko orduak

Tabernari libxa usaina zerion. Aulkiak hankaz gora mahaitxoetan jarrita, makina bat argizariak belatorio bat ematen zuen. Pixagale nintzen haren gorpua aurkitu nuelarik sobredosis batek jota atea oztopatzen. Inskripzio aunitzez inguraturik bizitzari adio esan zionez gero honako hau idatzi nuen: 'Jaungoikoa haren arimaz urrikal bedi, baina haren gorpua Imirizalduko kanposantuan datza'. Tabernatik ateratzen nintzelarik, orduak zaintzen dituen kanpaiak hamaikak jo zituen.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Beheko taula osatu ondoren Baztanenjasotako esaera zahar bat ageriko zaizu.

1. Zurginaren tresnak
2. Maingu
3. Sagardotarako barrika
4. Iparraldeko ibaia
5. Ibai gaineko igarobideak

B	7	D	2	A	5	D	6	B	4	D	8
D	3	A	9	A	3	D	5	D	10	B	3
B	5	A	2	B	9	B	10	B	11	D	4
A	1	D	7	A	12	A	4	D	11	B	2
A	10	B	1	D	1	A	6	B	8	A	7

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
A												
B												
D												

N-44

Zaharrak berri

Pobreen arrazoiak beti sobra

Jende behararen esana askotan ez da ezertan idukitzen.

Araitz

Taberna batean:

—Nire kotxeak bi litroekin chun kilometro egiten ditu.

—Eta nik hemen, litro bakar batekin, eta ibili ezinean...

Bizi Bizian

Aste honetan zehar egin da Iruñean Pagoaren Nazioarteko Kongresua, mota honetako Europan egiten den hirugarrena. Bost egunetan zehar Europako aditu hoberenek

aurkeztu dituzte orain dela gutxi arte bigarren mailakotzat hartzen zen espezie honi buruzko azken azterketak, lurralde oso aiposean. Izan ere, Nafarroako % 13 pagadi bait da.

Pagoari ohorea

MATTIN KAPITANSORO / IRUÑEA


Pagoa betidanik bigarren mailako espezieztat hartua izan da Europako zonae frankotan bai eta gure inguruan ere. Pinuak eta beste konifera motek eskeintzen zuten etekin ekonomikoak zirela eta, hortara zuzendu da mendeetan zehar basoen ustiapena. Europa osoan hain ugari den pagoari —12 milioi hektarea— erreparatu gabe. Horrela, Europako erdialdeko lurraldeetan —garrantzitsuenak basoen zabalerari dagokionez— garrantzi handiagoa eman zaie betidanik koniferei, eta, adibide gisa, oraindik orain belar txartzat hartua da pagoa Alemanian. Gure lurraldean ere antzeko zerbait gertatu da orain dela gutxi arte, basoen ustiapen eta kudeaketei buruzko eskumenak jaso arte, alegia.

Hori dela eta, Basoen Azterketarako Nazioarteko Erakundearen Elkarte (IUFRO) pagoaren azterketa eta ezagutza bultzatzeko kongresua antolatzen hasi zen 1984ean. Lehendabizikoa Alemaniako Grosshandorf herrian egin zen, eta bigarrena Txekos-

lovakiako Zvolenen, 1988an. Iruñean aste honetan egin dena hirugarrena izan da, hain zuzen.

Bertan 150 teknikari eta aditu bildu dira gai frankori buruz hitz egiteko, sei arlotan bilduak: pagadiaren analisi historikoa, pagadien ekologia, pagadien erabilerak, oihargintza, pagadien hobekuntzak eta zuraren teknologia.

NAFARROA EKOIZLE GARRANTZITSUA Nafarroak 50.000 eta 100.000 metro kubiko zur ekoitzen du urtero, Europan oso ekoizpen garrantzitsua, izan ere. Horrek bostehun eta mila milioi pezetako etekinak uzten ditu urtero Nafarroan, baina ez da ekoizten gure inguruko basoek eman dezaketen guztia. Horri ekoizpen kontserbatzailea deitzen zaio, Fernando Puertas Nafarroako Gobernu Mendi Zerbitzuko Proiektuen burua eta kongresuaren idazkaria azaldu duenez. «Basogintzan baso bakoitzak eman dezakeen azterketa egiten da eta horren arabera, beti kopuru altuen azpitik ateratzen da zura».



Urbasan Nafarroako pagorik hoberenetakoak daude. A. BARANDIARAN



Baso apartak

M.K. / IRUÑEA

«Nafarroan badaude Europako hoberenekin parekatu daitezkeen pagoak, oso kalitate onekoak». Fernando Puertas kongresu honen idazkaria ez dator bat egunotan frankotan aditu den adierazpenarekin. Europako mendebaldeko pago basoen kalitatea zalantzan jartzen zuena. «Baso batek urteak eta mendeak behar ditu osatzeko, eta, beraz, bere kalitateaz hitz egiterakoan kontutan hartu behar dira faktore asko. Leku guztietan badago zur ona eta txarra».

Nafarroan 135.000 Ha. pago daude, lurraldearen zabalera osoaren % 13, hain zuzen, eta

bertan aurki daitezke kalitate aparteko basoak: goia jo dutenak. Horien artean aipatzekoak dira Azaparretako (Erronkari Garaia) erreserba integralekoak edota Lizardoiakoak (Iratiko oihana), biak bait daude klimaxetik gertu, hau da, baso batek izan dezakeen kalitaterik onenetik gertu.

«Klimax —azaldu du Puertasek— baso batek har dezakeen mailarik hoberenari deitzen diogu. Izan ere, teoriaz, espezie guztiek badute eboluzioa eta garapena, beti egoera hobe baterantz, horretarako baliabideak onenak izanez gero. Horretan zer esan handia dauka kokapenak: ea klima ona den, lurra ona den, eta gizakumearen jarduera txikia

den. Hala ere, gizakumeak ere eragin onuragarria izan dezake horretan, jakina».

Hain zuzen ere, atzo osteguna eta gaur bertan pago ederrak ikusteko aukera izango dute kongresu honen partaideek, antolatuta dauden bisitaldiekin. Atzo, osteguna, Larrara bisitaldia egin zuten, eta bertan goi mailako biologoen laguntza izan zuten. Gizakumearen jardueraren eragina aztertu zen Orimendin, Arbaiungo Potxan, Belagoan eta Larran bertan.

Gaur, Aralar eta Urbasako pagadi bisitaldia dago iragarrita, bereziki azken hauena, Nafarroan aurki daitezkeen hoberenetakoak.

Pedro Arbizu

.....Politikaria

Eranco hil ondoren Lizarrako lehendabiziko alkatea, Pedro Arbizu, EAJra itzuli da berriro, hainbat urte EAn egon ondoren. Berak igo zuen lehendabiziz ikurrina udaletxean, eta berak bizi zuen Ma-

nuel de Irujo historikoari egin zitzaion omenaldia, erbestetik etortzean. Orain, EAJtik nazionalismoaren elkartzea bultzatu nahi du berriro, «hausturak izugarrizko mina egin zuelako».

«EAJren hausturaren zergatiak ez ditut garbi»

A. BARANDIARAN / LIZARRA

EGUNKARIA.— Urte asko eman dituzu politikatik urrun, alkatetza utzi zenuenetik. Jarraitu al diozu eguneroko politikari?

PEDRO ARBIZU.— Ez, deus ez. Dena utzi nuen orduan, eta apolitikoa egin nintzen. Eta hori kontutan harturik denok bizi behar dugula politika pittin bat, barrutik. Baina nik dena utzi nuen. Bihotzondokoa eman eta gero, erabat ahaztu nuen politika.

EGUNKARIA.— Eta zer dela eta, berriro itzuli? Zeuk erabakitako zerbait, edo eskatu egin zizuten?

ARBIZU.— Bai, Jose Maria Re-karte Arabako EAJkoak esan zidan: «Pedro, itzuli egin behar duzu». Nik esan nion oso zaila egiten zitzaidala, lehendabiziz adinagatik. Baina esan zidaten ongi pentsatzeko, EAJk behar ninduela eta pertsonaia historikoa behar zutela. Eta, azkenean, ongi pentsatu ondoren, esan nien: «Ongi da, ados nago, baina nire ondoan jende gaztea jarri behar duzue, bestela ezingo dut jasan». Eta horrela izan zen.

EGUNKARIA.— Zergatik auke-ratu duzu une hau? Zerbait aldatu da politikara berriro itzultzeko?

ARBIZU.— EAJn izan zen haustura zaplasteko ederra izan zen, eta izugarrizko mina egin dio Nafarroako nazionalismoari. Nik beti uste izan dut abertzaleok denok batera egin behar dugula lan, eta, adibidez, ez dut inoiz izan

EAJren karneta, beti esaten bait nuen jarraitzaile hutsa nintzela. EAn, ordez, alderdiaren karneta izan nuen, eta hor daukat, gordeta, oraindik oso lagun onak bait ditut bertan.

EGUNKARIA.— Zuk aipatu duzu haustura izan zen garai horretan gauzak ez zirela garbiegi azaldu, eta izkutuko kontuak izan zirela. Zein izan zen benetako arazoa?

ARBIZU.— Ez dakit oso garbi. Neri inoiz ez didate azaldu haustura zergatik etorri zen, EA zergatik aldendu zen. Askotan galdetu dut, eta esaten zidaten: «Carlos hortik atera behar duzu», eta atera zen. Baina inoiz ez ditut

gauzak oso garbi ikusi, oraindik ez didate informazio guztia eman. EAJk zerbait azaldu zidan, gauza guztien gainetik lan egin zuela haustura ebitatzeko, baina azkenean ez zutela lortu. Ez dut itsu-itsuan sinisten ere, oraindik ez bait dut arazoa sakonean aztertu.

EGUNKARIA.— Eta ez zenuke jakin nahi benetan zer gertatu zen, zeinek izan zuen errua?

ARBIZU.— Ez nuke gehiegi aztertu nahi. Gustatuko litzaidake neri azaltzea, baina neuk galdetu gabe. Estimatu nuke EAJko edozeinek neri deitzea, eta orduan gertatutakoa garbi azaltzea. Gero entzungo nioke EAJri. Horrela egingo ahal da, behin betiko hausturarekin amaitzeko!

EGUNKARIA.— Baina hausturaz geroztik, bideak elkartzera jo baino aldendu egin direla dirudi.



Nafarroan nazionalismoak gora egingo duela uste du Arbizuk.

OSKAR MONTERO

ARBIZU.— Orain, Gipuzkoan, EAJ gora eta EA behera doala dirudi. Hori irakurri nuen behintzat inkesta batean. Horrek pentsaraziko die, agian. Horrela izango ahal da! Nik, behintzat, ez nuke hil nahi biak elkaturik ikusi gabe.

EGUNKARIA.— Eta non daude horretarako oztipo handienak, EAn edo EAJn?

ARBIZU.— Ez bait dakit, ezin dut ezer esan.

EGUNKARIA.— Baina zuk bizi izan duzu EAJn barruko giroa...

ARBIZU.— Ez, jarraitzailea izan naiz, baina ez dut inolako harremanik izan politikarekin. Esan zidaten Elkartetxeko batzarrean egoteko, eta ez nuen nahi izan. Esan nien pakean uzteko, udale-

txean soberan sufritu nuela, eta lotura guztiak hautsi nituen.

EGUNKARIA.— Lizarran, azken hauteskunde lokaletan—1991ko maiatzaren 26an— EAJk ez zuen zerrendarik aurkeztu, eta Parlamentukoetan hogeito boto atera zituen. Nafarroa osoan, orobat, hiru mila. Nazionalismoaren elkartzea EAJtik egin daitekeela uste al duzu?

ARBIZU.— Nik uste dut baietz. Hori bai, baten bat gauzak izorratzen hasten ez bada, jakina. Orduan, Nafarroako nazionalistek Europari begira egingo genuke bidea. Azken urteetan behera egin du nazionalismoak Nafarroan, baina hemendik aurrera gora egingo duela uste dut. Inpresio hori daukat nik behintzat.

Azken urteetan behera egin du nazionalismoak Nafarroan, baina hemendik aurrera gora egingo duela uste dut. Inpresio hori daukat nik behintzat.

NOSKI
JATOR

ZVLDI EROA

